

BERRIGARA

154. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1997, urriak 10



Jakion Baserriko produktuak




Deba Garaiko Renault kontzesionarioa. Laster Amillaga 5ean, BERGARAn.



RENAULT

Hauxe Duzu Oparia:



CLINIQUE
Alergia-probekin frogatua.
% 100 perfumerik gabe.

Espezialista ezin hobek

Azkenean iritsi da Clinique-aren promozioa. Azala zaintzeko makilatze produktu bereziak eskeintzen dizkizun opari batekin, gainera.

Clinique produktuak erosten horietako bat aurpegirako tratamendua bada, produktu hauek dakartzan nezeser erabilgarria jasoko duzu d

Rinse-Off Eye Makeup Solvent
Oliorik gabeko begien desmakilatzaile bizkorra.

Dramatically Different Moisturizing Lotion
Edozein azalez behar duen "edari" hidratatzailea.

Naturally Glossy Mascara
Oso itxura naturala ematen betile-maskara.

Soft-Pressed Powder Blush
Masailak ongi argitzeko kolore hauts bi.

Long Last Soft Shine Lipstick
Distira apaleko ezpain-lapin hidratatzailea.

Internet: www.clinique.com

Clinique-ren 3 Urteko sistema



Mundu osan milioika emakume nahiago dituzten tratamendu sistema. Zergatik? Funtzionatzen du.

egiten duelako! Norberari egokitutako sistema erraz hiru pausu dauzka: garbitu, hidratatu, egunean bi aldiz. Zatoz ezagutzera!

Urriaren 13tik 18ra



Ibargarai 10
BERGARA

Bezere bakoitzeko opari bat. Opariak bukatu arteko est...

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tel: 76 03 97
Faxa: 76 29 77

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Esteban Mendibil

Angel Elkorobereibar

Maketazioa:

Iturbe

Publizitatea:

Christina Romero

Harpidetzak:

Iturbe Elortza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Margi Laskurain

Iturbe Labaien

Erredakzio kontseilua:

Iturbe Elortza

Angel Elkorobereibar

Iturbe Labaien

Komikiak:

Rodríguez

Ortega & Jon Alvarez

Ugalde

Azkarate

Kanaketa:

Iturbe Langorri taldea

Iturbe

Iturbe

Primategia:

Iturbe Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Laguntza gordailua:

Iturbe

ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain

erantzuten aldizkarian adierazitako

erantzunen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzaren Kultura
sailearen laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

IRENE AGIRRE

Musika Eskolako idazkaria

- Zela joan da aurtengo matrikulazio kanpaina?

- Nahiko ondo, pozik gaude jasotako erantzunarekin. Denera, aurten 80 bat ikasle berri matrikulatu dira, joan zen urteko kopuru antzekoa. Ikasle hauek San Martinen ostean hasi ziren Lenguai musikalera (lehengo solfeo) klaseekin eta datorren ikasturteko aurrera instrumenturen bat ikasteari ekingo diote.

Bestalde, instrumentuetako klaseak urriaren lehen jarri ziren martxan. Guztira, ia 500 ikasle eta 19 irakasle izango dira aurten Musika Eskolan.

- Zeintzuk dira arrakasta gehien duten instrumentuak?

- Denak, ahalegintzen gara ikasleak instrumentu



guztietan sartzeko eta joan zen urteko ikasle berrietatik, 5-6 laguneko taldeak sortu dira instrumentu bakoitzeko klaseetan. Hasieran jendeak instrumentu ezagunenetara jotzen du baina irakasleen iritzia ere hartzen da kontutan instrumentu hau edo bestearekin hasi aurretik. Ikasturtea amaitzean kontzertu bat egiten da aukeraketa hobeto egiteko.

“Joan zen ikasturteko antzeko erantzuna jaso dugu matrikulazio kanpaina”

I T U R R I O N E T I K

“El principe Igor” interpretatuko dute Bergarako taldeek Gabonetan

Udazken Kulturalaren barruan abenduaren 20an izango den Gabonetako kontzertuan, Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak eta Bergarako Orfeoia Aleksandr Borodin konpositore errusiarraren “El principe Igor” izenburuko lana interpretatuko dute. Borodinek XIX. mendeko bigarren zatian konposatu zuen “Las danzas guerreras del principe Igor” izenburuko opera eta Gabonetako kontzertuan opera horren zati bat entzuteko aukera izango da. Bestalde, Kubako *Coro de camara Entrevoces* taldeak datorren eguakitzean emango duen kontzertua Santa Marinaran izango da eta ez Novedadesen, hasieran iragarrita zegoen moduan.

E S A N
D U T E

“Bergarrek esan zezan Eibarren gustora egongo naizela, jentia alaixa, zabala ta jatorra dala. Denporiakini ikusi biharreko gauzia da, kalia ibilita ezagutzen da jentia”.

X. ZUBIZARRETA

Apaiza
...ETA KITTO!
EIBARKO ASTEKARIA

“Ahoz abo, belaunez belaun kanpainarekin azpimarratu bihar dogu eskolia ez dala nahikua. Biharrezkua dala badakigu, baiña biharrezkua da, gainera, auzua, etxia, lagunartia... horrek be bat egin behar dabe euskeriak”.

ENEKO OREGI

Hezkuntza
sailburuordea
... ETA KITTO!

“Hemen egiten den behi-okel guztia, lurralde autonomoan jaten denaren %42 inguru da. Eta labelaren barruan dagoena, berriz, hemen egiten denaren %18-20 da. Beraz, hemen jaten den behi-haragi guztiaren %8a da labelduna”.

IÑAKI ASPIAZU

Euskal Labelaren
koordinatzailea
EL DIARIO VASCO

**BEAN**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.
(Ikuslearen eguna).

**VERTIGO**


Eguena: 21:30.

▼▼ **Abdon Juaristi** zenaren "Gogoko irudiak" izeneko margo erakusketa ikusgai izango da Donostiako Echeberria arte galerian (Kontxa pasealekuko Zubieta kaleko 20. zenbakian) datorren urriaren 25era arte. Juaristiren ohizko paisaiekin gozatzeko aukera paregabea. Echeberria erakusaretoa goizez 10etatik ordubatera eta arratsaldez 5:00etatik 20:30etara izango da zabalik (domeka eta jaiegunetan itxita dago).

Zinea

▼▼ Euskal Telebistari esker hain ezaguna (eta errepikapenen erruz aspergarria ere bai) bihurtu zaigun *Mr.Bean* pertsonaiak pantailara haundira salto egin du. Koadro ospetsu bat Estatu Batuetara heltzear dago eta Londreseko galeria bateko aditua omen den *Mr.Bean* (**Rowan Atkinson**) erakusketako inauguraziora gonbidatuko dute. Ohizkoa duenez, dena hankaz gora jarriko du...

▼▼ Forum Cinematographe taldeak **Alfred Hitchcock**-ek 1958an errodatutako filmearen kopia berriztua lortu du egueneko emanaldirako. **Kim Novak** eta **James Stewart** aktoreek protagonizatutako filme klasiko honetan misterioa da nagusi, **Hitchcock**-en filme gehienetan gertatzen den moduan. Jatorrizko bertsioan emango da eta azpitoluak emengo dira gazteleraz.



Deiak

▼ **1937**an jaiotako en afaria urriaren 25ean Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Kortazarren.

▼ **1962**an jaiotako en bazkaria urriaren 25ean Antxonin. Izen-ematea bertan.

▼ **1955**an jaiotako en afaria Antxonin urriaren 25ean. Izen-ematea tabernan.

▼ **1947**an jaiotako en afaria azaroaren 8an Lasan. Izen-ematea 76 39 30 edo 76 22 19 telefonoetan.

▼ **Kontzertua.** Koma, Flyshit eta Anestesia gaur 22:00etan Jamarretoan. Lehen urteurrena ospatzeko doaneko jaialdia.

▼ **Jesus Mari Lazkanoren** margoak Donostiako *Galeria Dieciseis* aretoan urriaren 26ra arte.

Ogia

▼ **Domeka 12:** Ogizun.

FARMAZIAK

▼ **Eguakitza 10:** Camacho.

▼ **Zapatua 11:** Puy.

▼ **Domeka 12:** Puy.

▼ **Astelehena 13:** Guallar.

▼ **Martitzena 14:** Estella.

▼ **Eguaztena 15:** Mozos.

▼ **Eguena 16:** Camacho.

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Elosuko feria

Ganadua, bertsolariak, herri kirolak... domekan Elosun

Domekan, Pilarika egunean, Elosuko mendiko ganadu feriarene beste edizio bat izango da. Antolatzaileek aurreko edizioetako programari eutsi diote aurten ere. Joseba Lizarralde Elosuko auzo alkatearen hitzetan, "goizean ez dago aldaketa baundiegirik egiterik, ganadu feria 09:00etan zabalitzen baita. Arratsaldean, berriz, iaz zaldia eta mandoaren arteko lehia antolatu genuen eta aurten Betelu harrijasotzailearen saioa eta haurrentzat zezenak, pottokak eta basurde harrapaketa izango dira".

Esan bezala, ganadu feria goizeko 09:00etatik aurrera izango da zabalik. Joan zen urteko edizioan 190 abelburu bildu ziren Elosun eta domekan antzerko kopururen bat lortzea espero dute antolatzaileek. Lizarraldek adierazi digunenez, "behiak, ardiak, behorrak, zaldiak, astoak, ahuntzak, mandoak, idiak etabar izaten dira ikusgai eta salerosketa ugari izaten da urtero. Ganadu gehiena gipuzkoarra izaten da, Bizkaia aldeko ganaduzale batzuk etortzen



Taloa eta txorizoa ez da faltako domekan Elosun. laz egin zuen moduko eguraldia egten badu...

diren arren. Asko saltzen den? Urte batetik bestera asko aldatzen da baina, orokorrean, bai, tratu asko izaten dira".

Domekan, 13:30etatik aurrera piezarik onenak sarituko dira eta jarraian Larrañaga eta Gorrotxategi bertsoan arituko dira frontoian.

Haurrentzako jolasak

Arratsaldean, 5etatik aurrera, Bidaniko Betelu harrijasotzaileak 103,5 kg.ko txingurarekin saioa egingo du. Beteluk bere pisu bikoitza duen harria altxatu beharko du. Ondoren, haurrentzat, zezenak, poniak eta basurde

harrapaketa izango dira Elosun. Egun guztian zehar, berriz, Xafre eta Zaharra trikitilariak jardungo dute eta iluntzeko erromeria ere eurek alaituko dute. Joseba Lizarralderen esanetan, "ez dut aste aurten domeka izateagatik eta Donostian munduko txirrindularitza txapelketa jokatzearagatik jende gutxiago etorriko denik. Giro ona egiten badu, beste urte batzuetako jendetza biltzea espero dugu".

Elosuko ferian ganadu gehiena Gipuzkoako baserritarrena izaten da

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Ermuko izpiritutik, Francoren izpiritura

Alternatiba Demokratikoa deritzan bideoa plazaratu eta bere bozgorailu izateagatik epaitzen dute Madrilko Entzutegi Nazionalan HBren Mahai Nazionala, talde armatu batekin -ETArekin- kolaboratzea leporatzen diote.

Edozein estatu demokratikotan praktika normalizatua eta ondo ikusia izan behar luke arazo politikoak gainditzeko egiten diren saiakera guztiei atek zabaltzea, proposamenak mahaigaineratu eta eztabaidatzea. Hemen, berriz, bideoan ETAko kideak agertzen direla eta, proposamena ixilarazten da eta, gainetik, erakunde politiko baten zuzendaritza osoa epaitegira eramaten da.

PPko gobernuak erabakita zeukan ezker abertzaleari eskua sartzea, bideoarena aitaki hutsa izan da. Zigortu nahi dituzte, eta horretarako estrategia aspalditik dihardute prestatzen. Garbiago geratu da Miguel Angel Blancoren heriotzaren ondoren, Ermuko izpiritua deitua izan den horren atzean erreibindikazio nazionalak ito nahi dituzte, independentzia eta autodeterminazioa hitz sata-nikoak bihurtuz.

Epaitegitik kanpo aspaldi izan da kondenatua Mahai Nazionala, politikoek eta komunikabideek garbi daukate: HB errudun. Juridikoki, ez dago nondik hartu salaketa; baina epaiketa, estatuaren egarri errepresiboak asetzeko antzezpena da, mendekuzeremonia bat. Guretzat, berriz, Euskal Herriko gatazkaren trataeran atzerapauso nabaria.

Erantzunkizun politikoa duen giza erakunde baten eginkizuna da, gure ustetan, arazoak gainditzeko bideak jorratzea eta zilegizkoa, beraz, HBk egin duena, are gehiago Euskal Herriko garrantziko multzo baten desioak ordezkatzen dituenean.

Adierazpen askatasuna ukaezinezko eskubidea eta galdu ezineko altxorra delako, eta herri honek irtenbide politikoak behar dituelako, gure elkartasuna adierazi nahi diegu Mahai Nazionalako kideei.

ZUTIK

Gaizki-ulerturik egon ez dadin

Aurreko asteko BERRIGARAN, "Gutunak" saillean, Luzia Otadui Etxanizen izenean izenpetuta zetorren "Ikasi nahiko banu" izenburuko gutuna irakurri ondoren, kontu batzuk argitzea komeni dela uste dugu. Alde batetik, jakin badakigu guri zuzenduta ez zihoala, baina bertan agertzen ziren akatsak nondik datozen ez jakinean eta hitz joku polit hori ulertu ezean, herritar batzuen artean zalantzak edo ulertezinak sortu zitezkeela uste dugu. Horregatik, hurrengo batean nori edo zeri zuzenduta dagoen argi eta garbi adieraztea eskertuko genioke gutuna idatzi zuenari.

JAKIN AKADEMIA

Antzuolan kolpatua

Ondarren aparkatzen dut normalean Domekan, berriz, hilak 5, herriko plazan utzi nuen autoa. Ford Fiesta SS-9369-AH markakuladuna, beltza. Astelehen goizean, bertzera joan, eta aldamen batean kolpe galanta. Nota xistrin bat ere ez inguruan, ezta telefono zenbakirik. Portatu haiz! Nik ordaindu beharko juat hik egindako kaltea. Eskerrik asko bihotz-bihotzez!

BEÑARDO KORTABNARRIA

¿Un cerdo?

Hauxe izan zen Bedelkarrek San Martinetan atera zituen txartelen saria.

Txartela ikusi bezain laster konturatu ginen zuen, bai Bedelkarrekoen eta baita Xamatz eta Aritzeta kultur taldeen euskararriko axolagabekeria, izan ere txartel guztiak gaztelera idatzirik zeuden atzealdean zeuzkaten euskarazko bi hitz izan ezik. Berruari buelta asko eman diogun arren, ez dugu oraindik ulertu bi hitz horien helburua zein izan daitekeen. Ez da, ba, zuen kontzientzia euskalduna lasaitzearen izango?

Gure ustetan zeuden kontzientzia ez da batere garbi gelditu. Izan ere, gaztelera da espaiol egiten gaituena.

Eta Bergara herri euskalduna izanik, nolatan baztertu duzue gure herriko hizkuntza? Euskara da euskaldun egiten gaituena.

BERGARAKO EHE

Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



Ingresatuta jarraitzen dute Oñatin kotxe istripuan zuritutako bi gazteak

Martitzenean goizeko 13:30ak aldera Oñatin izandako kotxe istripuan zauri larriak izan zituzten Mikel Vicente eta Asier Latorre gazte bergararrak ingresatuta jarraitzen dute. Kotxea gidatzen zihoan Mikel Vicente, Gasteizko Santiago ospitalean dago eta koma egoeran egon da buruan dituen zauri larrien ondorioz.

Medikuak itxaropentsu agertu dira, nahiz eta bere osasun egoera oso larria izan. Asier Latorre, berriz, Txagorritxuko ospitalean dago eta gorputzean kolpe handiak jaso arren arriskutik kanpo dago.

Ezkerreko besoko kubitoa eta erradioa apurtuta ditu, baina istripuaren ondoren ez zuen konorterik galdu. Bi gazte bergararrak Oñatitik etxera zetoztela izan zuten istripua, eta eurekin batera zetozen Hondarribiako bi gaztetako bat hil egin zen. Kotxea Ulmako bihurgunean errepidetik irten eta irauli egin zen.



Elorregirik Epelera bitarteko kaminoa ere zabaldu eta konponduko da.

San Juan auzorako bidea konponduko du Diputazioak

San Juanen, TTT lantegiaren aurrean, dagoen aldapa eta kurbaren malda leuntzeko obren proiektua egitea onartu du Gipuzkoako Diputazioak.

Izan ere, San Juango industrialdera joateko errepidea nahiko egoera txarrean dago eta sarbide horiek hobetzeko egingo da proiektua. Gaur egun, 700 langile inguru ari dira lanean industrialde horretan eta kopurua azkenengo urtean gehitu egin da jarritako lantegi berrie-kin. Lantegi horien eta besteen azpiegiturak hobetzeko egingo da bihurgunearen altuera kentzeko proiektua.

Diputazioak onartu berri du lan hori egitea eta orain proiektua egiteko oinarriak aterako ditu. Epeak jartzea oso zaila da, baina Udalean esan digutenez, lanak 1999ra-ko egitea espero dute.

San Prudentziotik Epelerako errepidean berrikuntzak

San Juanen egingo diren hobekuntzak ez dira Bergarako sarbideetan egingo diren bakarrak. San Prudentzioko bidegurutzetik Epelera bitarteko errepidea hobetzeko eta zabaltzeko proiektua egiteko ardura LKS enpresari eman dio Diputazioak 10.790.00 pezetaren truke. Guztira 16 enpresa aurkeztu ziren proiektua egiteko lehiaketara eta adjudikatu ondoren, LKS 5 hilabeteko epea izango du proiektua egiteko.

Diputazioak egindako kalkuluen arabera egunero 12.000 ibilgailu inguru pasatzen dira errepide zati horretatik eta hainbat arazo izaten dira, 1.300 metroko tartea bihurgunez beteta baitago. Errepidea zabaltzeko proiektuak, gehienez, 10 metroko zabalera aurreikusten du eta, era berean, bihurguneen erradioa handituko dute. Halaber, 1,5 metroko artzenak egiteko asmoa dute eta lan horiek aurrera eramateko, agian, Deba ibaiaren gainean egin beharko dira lanak.

Errepideaz gain, Diputazioak San Prudentzioko bidegurutzea hobetzeko asmoa azaldu du. Orain sortzen diren arazoak konpontzeko errotanda bat egiteko aukera aztertzen ari dira.

Bukatzeko, Kanpazarretik Elgetarako errepidean ere hobekuntzak egingo dituzte. Horretarako, Diputazioak proiektuak aurkezteko epea zabaldu du eta proiektu horiek egiteko 3 milioi pezetako aurrekontua aurreikusten da. Obren aurrekontua 900 milioi pezetakoa da.

HILDAKOAK

Jose Bernardo Cipitria Otegi
Urriak 6, 74 urte.

JAIOTAKOAK

Alazne Laskurain Lauzirika
Irailak 17
Kristine Azpiazu Larrañaga
Irailak 29
Maitane Muruamendiaraz Arana
Irailak 30
Ainhoa Pardina Arenaza
Urriak 2

Lapurreta igerilekuetan

Agorrosingo igerilekuetako tabernan lapurretan ari ziren bi lagun atxilotu zituen Ertzantzak astelehenetik martitzenera bitarteko gauean. Tabernan dirua eta igerilekuetan ordenagailu bat ohosten ari zirela harrapatu zituzten ertzainek, bertako alarmak abisatuta.

Irrati tailerra Arrasaten

Arrasateko Gazte Zerbitzuak irrati tailerra antolatu du. Arlo tekniko nahiz arlo literarioa landuko dira. Ikastaroa Arrasate Irratian emango da, urriaren 8tik abenduaren 17ra arte astean behin. Izena emateko epea datorren martitzenean bukatuko da. Izena emateko deitu Arrasate Irratira (79 58 77).

Eibar-Gasteiz autopista

Eibar-Gasteiz autopistako proiektuaren erakusketa epea luzatu egin da datorren eguastenera arte. Proiektuaren mapak Udaletxeko lehenengo solairuan daude ikusi nahi duenarentzat.

Kirol patrozinioari buruzko jardunaldiak

Deba Garaiko kirol politikari buruzko V. topaketak izango dira bihar, zapatua, egun osoan zehar Oñatiko Santa Ana antzokian. Ekitaldiak goizeko 08:45enetan hasiko dira eta gai nagusia kirolaren babesa izango da. Jardunaldiak 17:30etan bukatuko dira mahai inguru batekin. Bertan, Euskadiko Kutzako Pedro Ruiz de Azua, Astoreko Iosu Baskaran, Euskal Bizikletako Jabier Etxekopar, Askatuak taldeko Iñaki Almandoz eta Santiagotarrak taldeko Xabier Arellano izango dira.



Aurkezpenean, Arrasateko alkatea eta Iñaki Ugarteburu Bergarako kirol teknikaria, eskumana.

Futbolari eta atletismoari buruzko euskarazko fitxa didaktikoak kalean

Deba Garaiko udalek bultzatuta argitaratu dira

Deba Garaiko udaletako euskara eta kirol zerbitzuek bultzatutako Kirola Euskaraz programaren barruan futbolari eta atletismoari buruzko fitxa didaktikoak aurkeztu ziren joan zen asteartean Arrasateko Udaletxean. Atletismoko fitxak Jose Ramon Eskibelek egin ditu eta futbolekoak, berriz, Alfredo Lopez de Sosoagak. Fitxak ikasle, irakasle eta entrenatzaileei daude zuzenduta. Egileek adierazi zuten, fitxen helburua kirolaren bidez ikasle zein jokalariek hezitzea da. Fitxetan jolas eta ariketa praktiko ugari jasotzen dira. Harrezkero, kirolaren munduan euskararen erabilera bultzatzeko tresna garrantzitsuak ere badira fitxa didaktikoak. Futbol eta atletismo fitxak eskoletan eta kirol elkarteetan banatuko dituzte

eta norbaitek eskuratu nahi izanez gero, Udaleko Kirol edo Euskaraz Zerbitzura jo dezake.

Orain arte "Entrenatzaile eta irakasleentzako fitxa didaktikoak" proiektuaren barruan, beroketa, eskubaloia, rugbia, saskibaloia, futbola eta atletismoari buruzko fitxak egin dituzte. Euskarazko kirol materiala sortzeko lanen barruan igeriketa, karatea eta judoaren inguruko argitalpenen prestaketan aritu dira. Halaber, "Futbol Entrenatzaile" eta "Kirol Entrenamenduetarako Oinarriak" liburuak argitaratu dituzte. Euskara eta kirolarekin lotutako proiektuekin bukatzeko, kirolaren entrenatzaile titulua lortzeko ikastaroetarako behar den materiala datorren urterako prest izatea espere dute.

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

Hasiera arrakastatsua izan zuen Jubilatuen kultur hamabostaldiak

Joan zen martitzenean eman zitzaion hasiera Bergarako eta Antzuolako jubilatuek antolatutako Kultur Hamabostaldiari. Miguel Altuna zaharrek areto nagusia jendez leporaino bete zen Jose Antonio Pagola Gipuzkoako elizbarrutiko bikario nagusiaren hitzaldia entzuteko. Aurretik, Luis Mari Bandres Gizardekintzako diputatuak, Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak eta Tomasa Zabaleta San Jozepe Jubilatuen Elkartearen presidentek kultur Hamabostaldiaren aurkezpena egin zuten. Datorren

egunerako, hilak 16, beste hitzaldi bat iragarri dute toki eta ordu berean: Maria Teresa Bazok, EHUko So-



ziologia katedradunak, 2.000. urteko gizardeari begira jubilatuek dituzten erronkei buruz berba egingo du.

Mahai Nazionalaren epaiketaren kontrako manifestua

Herri Batasunaren Mahai Nazionalaren epaiketa dela eta, bertako kideen absoluzioa eskatzeko manifestua aurkeztu zuten joan zen egunean Kultur Etxean hainbat herritarrek. Manifestuak hiru puntu ditu: lehenengoan, HBren ikuspegiarekin ados egon edo ez, HBren zuzendaritza auziperatzearekin ez datozela bat esaten da, "gure askatasun demokratikoen erregimen batean, leporatzen zaizkien ekintzek ez luketelako jazarpen penalik izan behar". Bigarren puntuan, auzi honekin "bide errepresiboa jarraitzen dela eta Euskal Herriaren normalkuntza

baldintzak lortzeko oztopo bat dela" esaten da. Hirugarren puntuan, azkenik, aurreko bi puntuak kontutan izanik, HBren Mahai Nazionalaren partaideen absoluzioa eskatzen da. Manifestua Juan Martin Elexpuruk irakurri zuen eta 25 herritarrek sinatu dute, besteak beste, Jose Mari Larrañaga Miguel Altuna institutuko zuzendaria, Felix Beitia Jai Batzordekoak, Aitor Elkoro eta Jokin Etxaniz pilotariak eta Markos Gabilondo internazionalistak.

Bestalde, Bergarako 328 biztanlek euren autoinkulpazioa aurkeztu zuten joan zen zapatuan Bergarako epaitegian. HBk hiru manifestazio iragarri ditu datozten egunetarako: zapatu eta astelehen honetan Bergaran 19:30etan eta domekan Bilbon 12:00etan.

Manifestua sinatu duten herritarrek.



Harakinen zozketa

Bedelkarreko harakinek astero zozketatzen dituzten txuletak aste honetan 8.068 zenbakia duenarentzat izango dira.

Amnistiaren Aldeko Batzordearen salaketa

Gaizka Gaztelumendi eta Jose Mari Iurrebaso, Bilbon hil zituzten bi uesteko ETakideen heriotzaren kontra protestatzeko irailaren 27an egin zen manifestazioa sakabanatzen Ertzaintzak gomazko pilotakada batekin gazte bat zauritu izana salatu du Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Bergarar gazteak giltzurrun inguruan jaso zuen pilotakada eta Txagorritxuko ospitalean egon zen hiru egunez ingresatuta.

Asmaizu lehiaketa

Bergarako Akulu-AEK Euskaltegiak antolatzen duen Asmaizu lehiaketan Iker Idigoras izan da aste honetako irabazlea. Erantzun zuzena hau zen: "Ene bada! non jaso dituzu perretxiko hauek guztiak?". Aste honetan ere lehiaketan parte hartzeko aukera izango da Antzuola, Elgeta, Angiozar, Osintxu eta Bergarako hainbat tabernatan jarritako kutxetan txartela lagaz.

Nafarroa Oinez

Urriaren 19an Tafallan ospatuko den Nafarroa Oinez, Nafarroako ikastolen jaietan, lan egiteko jendea behar da. Interesa dutenek Jardunera deitu dezakete.

Egin mus txapelketa

Eginek antolatzen duen mus txapelketako lehen kanporaketa gaur, eguakitzan, 22:15etan Txamonix tabernan jokatu da. Izen-ematea bertan egin ahal izango da txapelketa hasi aurretik.

Aranzabal Lagunartearen bilera zaptuan

Zapatuan 13:00etan Aranzabal Lagunarteak bilera egingo du Kultur Etxean. Denboraldi honetan antolatuko dituzten irteerak zehaztuko dituzte bileran.

Ortua potetan

Jakion: baserriko produktuen elkartea



Jakion nekazaritzako produktuen transformazio zentrua ostiralean inauguratu zen Gatzagan, hainbat agintarirekin presentziaz.

Joan zen eguakitzean Jakion, nekazaritzako produktuen transformazio zentrua inauguratu zen Leintz-Gatzagan. Jakion elkarteak zenbait produktu elaboratzeko gauza ez diren baserriarrei beharrezko egiturari eskeinitako die aurrerantzean, Luis Arkauz Jakioneko presidentek azpimarratzen duen moduan "etxeko andra batek egingo lituzkeen produktuak kaleratzeko asmoz".

Jakion elkarteak bailarako 36 baserriarrek, Deba Garaiko Mendi Nekazaritzako elkarteak eta Leintz-Gatzagako Udalak bultzatu dute, Diputazioko Nekazaritza Saila (Mendi Nekazaritza) eta Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren laguntzaz. Inbertsioa 17 milioi pezetan ingurukoa izan da.

Gatzagan kokatutako transformazio zentruan, zenbait produktu elaboratzeko (mermeladak, barazkiak eta frutak) behar-

rezko azpiegitura ez duten baserriarrei euren produktuak potetan sartzeko aukera emango zaie. Halako zentro bat zabaldu ahal izateko eskatzen diren osasun baldintzek inbertsio handiegia eskatzen dute eta baserriarrek ezin izaten diote beraiek bakarrik gastu horri aurre egin.

36 produktore

Luis Arkauz oñatiarra dugu Jakioneko presiden-

tea. Bere hitzetan, "36 produktore-bazkide izango dira Jakionen eta Deba Garaiko herri guztietako baserriarrek daukade: Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Gatzaga, Eskoriatza... Guztiek euren produktuak hemen elaboratu ahal izango dituzte, gaur egun sanitas mailan bete behar diren baldintzak etxeetan betetzea oso zaila delako inbertsio handiak eskatzen ditu horrek. Hemen, Jakionen, sanitas maila

“Produktuak potetan kontserbante barik eta ezer barik sartuko dira, etxeko andra batek egingo lukeen moduan” LUIS ARKAUZ

dintza horiek guztiak be- teko dira eta produktuak, potetan sartu ondoren, merkatura bidaliko dira, kontserbante barik eta ezer barik, etxeko andra batek etxean egingo luke- en moduan”.

Etiketeta propioa

Baserriko barazki eta fruta kontserbak kaleratu- ko ditu Jakionek, bere etiketa propioarekin: to- mateak, lekak, zerbak, erremolatxak, azenario-

ak, porruak, mermeladak, okaranak, kiwiak, mada- riak ardotan, sagar kon- pota, etabar. Arkauzen arabera, “herri guztietako dendetan aurkitu ahal izango dira produktu ho- riek. Superfizie haundie- tan ere toki berezia izan- go dute Jakioneko pro- duktuek, stand berezie- tan izango dira, azken batean antzerako pro- duku industrialak baino garestiagoak direlako. Garestiagoak dira pro- duku hobeak direlako:

naturalagoak izateaz gain elaboratze proze- suak kosto altuagoa dau- ka gure kasuan”.

Arkauz baikor azal- tzen da produktu hauen etorkizunaren aurrean; “nire ustez, jendeak onartuko du produktuen berezitasun hori, gauza naturala izatea eta beste batzuk baino hobea izate- a. Bailerako berrin- dartzeko ekonomia lortu nahi dugu eta gure pro- dukuak merkaturan sar- tzen diren neurrian

ezertarako erabiltzen ez diren lursailak, belar- diak, sasiarteak etabar produkzio lur bihurtu nahi ditugu”.

German Muruamen- diaraz bergararra Jaurlaritzako Elikadurako Politika- rako Zuzendari Nagusia dugu. Muruamendiaren ustetan, “proiektu honen errentagarritasuna bai- no, horrenbeste baserri- tar elkartzeko eta jende gazteak proiektu honekin ikasiko duena baloratu- ko nuke. Ikaragarritzko balioa dauka horrek. Errentagarritasuna lor- tzea, berriz, zaila izango da, produkto horiek Na- farroatik edo Errioxiatik datozen beste batzuekin konpetitu beharko dute- lako. Hemen produzitzen badakigu, baina saltzeko orduan nabiko makal- gara. Gaitza izango da merkaturan tokia aurki- tzea, apostu gogorra da Jakionena merkaturan konpetentzia haundia dagoelako. Beraz, he- mengo produktuekiko sentsibilitate berezia duen jendea topatu be- harko da”.

Konpetentzia

Jaurlaritzako prest azal- du da Jakion bezalako produktuak bultzatzeko; “lokala martxan jartzeko inbertsioaz gain, tresne- ria ere berritzen joan be- harko da teknologiak etengabe aurrera egiten duelako. Publizitate al- detik ere esfortzu bat egin beharko da eta sal- menta lanerako lagun- tzak ere beharrezkoak izango dira. Laguntza morala bakarrik ez, la- guntza ekonomiko ere eman beharko zaio proiektu honi”.

Gizaburuagan (Boli- bar) eta Zerainen antzera-



Jakionen parte hartzen duten bailarako 36 baserriarrak hainbat produktu elaboratzen dituzte.

ko proiektuak dira martxan; "oraindik ere denbora eman behar zaie zer nolako erantzuna izaten duten ikusteko, baina niretzat inportantea jendea elkartu eta borrelako proiektu bat martxan jartzea da. Bestalde, bildur naiz jendeak ez ote duen esfortzu haundiegia egingo. Horrela gertatzen bada, jendea erretzeko arriskua dago eta hori ebitatu egin behar da".

Arantzazu Iñarra bergararra komertzial lanean ari da Jakionen. Egunotan, Jakioneko produktuak promozionatzeko lanean ari da eta jendearen erantzuna oso ona izan da; "jendeari baserriko produktu naturalak direla azpimarratzen diogu eta etiketa ikustearekin

baterra basierako inpresioa oso ona izaten da. Orain arte mermeladek izan dute barrerarik onena, azken batean barazkietan konpetentzia haundia dagoelako. Mermeladetan aukera haundia eta berria dago; adibidez, jendea ez dago obituta pikuen mermeladak jaten baina egin ditugun dastaketan jendeari gustatu zaio". San Martineko ferian ere dastaketa postu bat jarri zuten Jakionekoek Bergaran eta herriko hainbat dendetan euren produktuak salgai daude dagoeneko.

Bazkideen iritzia

Jakioneko bazkideen artean, Arantxa Belategi, Eugenio Igarza, Balentin Gabilondo, Iñaki Olaberria, Maite Aristegi eta Sabin Lonbide bergararrak eta Kontxi Izagirre, Tomas Larrañaga eta Mari Karmen Iturbe antzuolarrak ditugu. Sabin Lonbidek adierazi digunez, "gertatzen da baserriko produkzioa oso estazionala izaten dela eta saioi batzuetan produktu batzuk nabiko soberan egoten direla. Horrelakotan arazoak izaten ditugu produktu horiek

dendetan edo zuzenki saltzeko eta Jakion borretarako irtenbide bat izango da. Aportazio bat eginda sartzeko aukera izan genuen eta borrek animatu gintuen Jakionen parte hartzeko".

Sabinek inguruko produktuak bultzatzearen garrantzia azpimarratzen du; "gure bailaran inguruko produktuak bultzatu behar ditugu. Guk batez ere, berdurak ekartzen ditugu: azelgu, porrua eta borrelakoak, fruten kasuan ez daukagu kantitate haundirik. Jendeari produktuak dastatu ditzala eskatu behar

"Proiektuaren errentagarritasunari baino, horrenbeste baserritar elkartzeari garrantzia ematen diot" GERMAN MURUAMENDIARAZ




Jakioneko fruta, barazki eta mermeladak bailarako herri guztietako dendetan aurkitu ahal izango dira.

zaio. Azken batean, kalitatea eskeintzen da, baserriko produktuen elaborazio naturala egiten da bemen, kontserbante naturalekin eta zerbait garestiagoak badira, kalitatea ordaindu egiten delako da”.

Produktu berriak

Lapatza baserriko Tomas Larrañaga antzuolarra Jakioneko produktore biologiko bakarra dugu eta gertutik jarraitu zuen Jakionen sorrera; “nabiko apostu inportantea izan da, baina guretzat, salmenta zuzena egiten dugunontzat, saltzeko beste bide bat izan daiteke bai. Bezeroei beste eskeintza bat ematen diegu produktuak era desberdinean aurkeztuz eta hori aberasgarria da bai guretzat eta baita kontsumitzaileentzat ere. Momentuz, errodaian dagoen proiektua da eta aurkezten zaizkigun arazok gaintitzen joango gara piskanaka-piskanaka. Baina itxura oso ona bartzten diot Jakioni. Gauza berriek erantzun nabiko ona izaten dute



Ezkerrean Luis Arkauz, Jakioneko presidentea. Eskuinean Sabin Lonbide Jakioneko partaideetako bat.

eta merkatuetan jendeak produktu hauen aurrean jarrera ona erakutsi du hasi ginenetik. Gure baserrian barazkiak lantzen ditugu eta Italian,

Kalabrian, egiten diren gauza batzuk ezagutu ondoren pipar berdeen mermelada egiteko asmoa daukagu etorkizunean. Berezitasun hauez apar-

te, produktu normalagoak ere salduko ditugu. Etor-kizuna? Produktu onak baldin badira, etorkizuna ere ona izango dela dudarik ez dago”.

“Apostu da baina salmenta zuzena egiten dugunontzat beste bide bat izan daiteke Jakioneko hau” TOMAS LARRAÑAGA

ZUBI-BERRI



JATETXEA

Lehen platera:
Entsalada edo
Fritoak edo
Nahaskia

Bigarren platera:
Txuleta edo
Arraina edo
Piper beteak

Postrea

Kafea


Etxeko ardoa

2.300 PTA

Koadrilentzat
ezin aproposagoa!

ASTEBUKAERETARAKO
MENU BEREZIA

San Anton auzoa Tf. 76 30 24



GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

YAZKI
UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3 Ibariari, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

Jose Antonio Pagola

Elizabarrutiko bikario nagusia

Jose Antonio Pagola Gipuzkoako elizbarrutiko bikario nagusiak hitzaldi bat eskeini zuen joan zen asteartean Miguel Altuna institutuko areto nagusian. Pagolak gaurko gizartean jubilatuek izan dezaket jarrierari buruz hitz egin zuen. Hitzaldia- ren ondoren elkarrizketa bat egin genion eta Pagolak jubilazioaren gainean egindako erreflexio nagusiak laburbiltzen saiatu gara.

- Aretoa leporaino bete da zure hitzaldia entzuteko. Gustora Bergarako jubilatuek emandako erantzunarekin?


- Oso gustora, jende asko etorri baita. Ez hori bakarrik, iruditzen zait hitzaldia arreta handiz jarraitu dutela eta interesgarria gertatu zaiela. Horrek esan nahi du gaurko jubilatuek benetan nahi duela bere bizitza zuzendu eta ondo bizi. Ez da lehengo bezala erretiratu eta jendea bere etxean

sartzen zela. Gaurko gizartean beste jarrera bat ikusten da jubilatuen artean.

- Gizarteak jubilazioarako ez gaituela gertatzen aipatu duzu hitzaldian. Badago ondo jubilatzeke metodorik?

- Metodorik ez dago. Nik esan dut eta horrela da, gizarte honetan prestatzen gaituztela, lan bat bilatzeko, familia aurrera ateratzeko... Gauza horiek bizitzaren lehenengo zatian egiten dira eta orain arte, behintzat, ez gaituzte prestatu bigarren eta azken etapa, jubilazioarena, ondo bizitzeko. Horregatik ondo iruditzen zait horrelako ekitaldiak eta jubilatuen elkarteak. Hau ez da eskolan edo telebistan ikasten eta, orduan, benetan behar ditugu horrelako ekitaldiak ikasteko. Zahartzaroa ere nola bizi ikasi egin behar da.

“Jubilatuak bizitza proiektu bat eratu eta jarrera positiboa izan behar du egoera berriaren aurrean”



“Zaharraren jakinduria handia da eta gizarteari eman diezaioke”.

- Jubilazioaren aurrean jarrera positiboa izan behar dela azpimarratu duzu. Hori zela lortzen da?

- Jubilazioaren aurrean jarrera batzuk ebitatu egin behar dira. Askotan jubilazioaren aurrean jende askok ez du egoera berria onartzen. Ez da jabetzen jubilatuta dagoela eta beti gazte bizi nahi du. Postura hori oso negatiboa da. Bigarrenez atzera begira bizi direnak daude eta ez dute bizi presentea. Txarra da norberaren arazoetan murgiltzea bakarrik, horrela beste gauzetan interesa galtzen baita bizitzatik

erretiratu egiten da pertsona. Alderantziz, bizitzan jarrera positiboa izan behar dela azpimarratu dut eta, batez ere, bizitza proiektu bat egitea da garrantzitsua. Jubilatuek denbora libre asko dauka eta bakoitzak zehaztu behar du zer nahi duen.

- Jubilatuek zer ekarpen egin diezaioke gizarteari?

- Zaharrak asko bizi izan du eta badaki bizitza zer den. Bere jakinduria handia da eta hori gizarteari eman diezaioke. Jubilatuek ez du lanik egiten eta presa barik bizi da. Horrek bere burua hobeto zaintzeko aukerak ematen dizkio. Gero ere bizitza disfrutatu behar du. Ondo bizi bada, goizetik gaureraino, egin dezake bere bizitza pozik, gogoz, eta hortik joan behar du.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

kontuola...

Antzuolako hamabostekaria. 3 zenbakia, 1997-10-10

Gaztetzokoa, gazteen txokoa

Hamaika urtetik gorakoentzako lokala zabalduko da datorren astean

Datorren zapatuan, urriak 18, zabalduko da Antzuolako gaztetzokoa, 11-16 urtera arteko neska-mutilentzako. Kaixo izango dute biltzeko, jolasteko eta denbora pasatzeko txokoa.

G

uraso Elkarte, Pausoka eta DBHko haurren gurasoek bultzatutako proiektua da gaztetzokoa. Gurasoetako batek adierazi digunez,

"neguan, eta batez ere giro txarrarekin neska-mutilak ez zeukaten nora joan, beti elizpean edo udaletzeko arkupeetan... Eurontzako lokal baten beharra zegoen, egoteko, musika entzuteko edo jolasteko". Inguruko herrietan adin horretako haurrekin lanean diharduten beste taldeekin aritu dira, eta azkenean Bergarako Jardun euskara taldeak eskeinitako proiektua aukeratu dute.

Neska-mutikoen karnetak izango dituzte gaztetzokora sartzeko eta bertako begiraleek antolatuko dituzten ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute. Nekane Gabilondo Jarduneko kideak adierazi digunez, "asteburuoro eskulanak, antzerkia, dantzak, irteerak, akanpadak... antolatuko dira; beraiek gustorara egoteko txoko bat izango da".

Jardunen programa landuko dute

Jardunek aurkeztutako proiektua onartu zuten gurasoek diotenez gure errealitatera gehiago hurbiltzen zen; asteburuotarako plan bat aurkeztu ziguten eta hori zen nahi genuena". Lau begiralek jardungo dute lanean gaztetzokoan, zapatu eta domeketan, arratsaldeko 4etatik 8etara.



Laster izango dute euren txokoa.

Gaztetzokoa, kostatako proiektua

Udalak eta Guraso Elkarteak iazko uztailan sinatu beharreko akordioa bertan behera gelditu zen. Kaixoko lokala aproposa izan arren, Udalak ez zuen inbertsiorik egin nahi bertan, Kultur Etxearen proiektuak lokalaren birmoldaketa aurreikusten duelako. Neguan berriro ekin zioten gurasoek proiektuari eta azkenean, programa baten bidez bideratutako aisialdi eskein-

tza aurrera eramateko hitzarmena sinatzea adostu dute Guraso Elkarteak eta Udalak.

Horren arabera, Kaixoko hasierako konponketak Guraso Elkarteak egingo ditu eta Udalak proiektuaren finantziazioan lagunduko du, Jardunek aurkeztutako aurrekontuaren %55a ordainduz. Gurasoek finantziazioaren %20a ordainduko dute kuoten bidez. Gelditzen den %25a Guraso Elkarteak ordaindu beharko du.

Asteburuoro eskulanak, antzerkia, dantzak, irteerak, akanpadak.... antolatuko dira

Arriskua Zurrategin



Idoia Conget

Aspalditxotik adihardugu kexatzen Zurrategi plazan dauden arriskuetaz. Arriskuak aipatzean arduraren gehien sortzen duena kioskoaren egoera da: eskailera estuak, barrak zeharretara dituen baranda, gaineko zementuzko harmaila... Zurrategiko plazaren kokapena (herriaren erdian) eta bere zabaltasunagatik jolas-toki aproposa da, eta haurrak espezialistak dira behar ez-tako toki-tara igotzen. Istripu pare bat ere egon da eta honen ondorioz "konponketa" batzuk egin ziren: eskaile-rako sarreran zeharakako barradun atea itxi eta inor sartu ez dadin, eskailerako barandari tartean beste barra batzuk ipini. Haurrek igotzen jarraitzen dute baina lehen baino arrisku handiagoarekin.

Gurasoon ardura bada gure haurrak zaindu eta begiratzea, teknikari eta agintariena arrisku-potentzialak aurreikusi eta ekiditzea da. Baina ez genuke nahi ezta ere hau protesta hutsean gelditzea, eta proposamen hau luzatzen dugu: alboetako eskailerak kendu eta plaza aldera begira ipini eskailera berria, hexagonoaren alde oso bat hartuz; baranda goitik beherako barraduna ipini, eskaileran eta kioskoaren buelta osoan; gainean dauden harmailak kendu baranda gainera igotzeko aukerarik egon ez dadin.

Gure iritzia kontutan hartzea espero dugu eta lehen baino lehen irtenbide egoki bat ematea.

Perretxiku erakusketa



1995eko perretxiko erakusketan jende dexente elkartu zen.

Arrola mendizale elkarteak perretxiku erakusketa antolatu du urriaren 19rako. Antzuolako zein Araba aldeko perretxikoak ikusi ahal izango dira erakusketan, baina aurretik perretxikutara joan beharko dira eskolako umeak. Aurten 5. mailakoak perretxikuen gaia aztertzen ari direnez, eurak izango dira ostiralean Antzuolako mendietan perretxiku bila ibiliko direnak.

Plazan izango da Arrolak urtero egin ohi duen erakusketa. Migel Angel Lizarralde, Arrolako lehendakariak, adierazi digunez, "kalean egiteak jende gehiago erakartzen du".

100 perretxiko ezberdin erakusten dituzte urtero Herriko Plazan baina ez da hori Arrolak egun horretan erakutsiko duen bakarra.

Perretxikuekin batera, mendizale taldearen aurtengo irteeren argazkiak ere egongo dira, besteak beste, Candanchu, Picos de Europa, Zurizako akanpada eta Pirinioetako argazkiak ikusi ahal izango dira.

Ipuin-tailerra

Kultura eta kirol batzordeak ipuin kontaketa trebatzeko tailerra antolatu du urriaren 21 eta 28rako. Rai Bueno, Oihulari Klown taldeko pailazo eta kontu kontalaria, arituko da bi saioetan eta berak dioenez, "ikastaro honek ipuinak kontatzeko artean entrenatzeko eta erreflexiorako gune bat eskaintzen die parte hartzaileei". Hizkuntz adierazpenarekin zerikusia duten teknikak erabiltzen ditu Oihulari Klowneko kideak; eta beste batzuen artean, begirada, hizkuntz afektiboa, erritmoa, adin eta gaien arabera ipuin tipologiak lantzen saiatuko da.

Saioak herriko eskolan izango dira, martitzenetan arratsaldeko 06:30etatik 08:30etara. Aukera aproposa da ipuinak kontatzen ikasi nahi duenarentzat, eta kanpoan gelditu nahi ez duenak hilaren 16a baino lehen udal-etxean eman beharko du izena, ikasle kopurua mugatua baita.

LARREA

TABERNA

Kalebarren, 17
ANTZUOLA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

GOROSTI

Taberna

☎ 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA

Txomin eta Urbil Artola Zinetokian

Txomin Artola eta Urbil aita-semeek elkarrekin egin duten lehenengo diskoa aurkeztuko dute urriaren 18an zinetokian. Txominek esan digunez, "Hondarribian izeneko diskoa 40 lagunen aurrean grabaturik dago eta zenbait kantutan jendeak abesten du". Horrez gain, Urbilek Aita Donostiak Iparraldean jasotako "Egun batez



Aita-semeek Hondarribian diskoa aurkeztuko dute.

ari nintzelarik" kantu zaharra abesten du. Aita-semeak izango dira datorren zapatuko jaialdian, baina Txominek dioen moduan "kantaldiak ematen ditugu biak musikariak garelako, badugu sintonia bat eta biok atsegin dugu herri txikietan abestea, kantaldiak goxoagoak direlako eta kontaktua zuzenagoa delako entzuleekin". Herri handi eta txikietako emandakiak konparatu ezin badira ere, herri txikietan jendea gehiago animatzen da abestera, kantu ezagunak entzuten dituenean". Orexan izango da Txomin eta Urbilen hurrengo emanaldia.

HBko Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa

Aurreko zapatuan 103 sinadura bildu ziren Antzuolan, Herri Batasunako Mahai Nazionalaren aurkako epaiketan autoinkulpatzeko.

Herriko HBko kideek Anaje Egaña bake epaileari entregatu zizkieten jaso-tako sinadurak, Bergarako epaitegian entregatzeko.

Bestalde, urriaren 12an Bilbon izango den manifestaziorako autobusa egongo da goizeko 10:00etan.

Derbya Antzuolan

Bilboraino joan barrik, bi futbol taldeetako zaleak Larrea tabernan aritu ziren gora Real gora Athletic zapatu iluntzean.



Zeramika eta eskulan ikastaroa

Ikastaro honetan parte hartzeko izen ematea, udaletxean urriaren 16a baino lehen. Bestalde, zabalik dago oraindik margo eta marrazki ikastarorako matrikula. Klaseak astean behin, ordu eta erdiz izango dira eta helduek, beraien-tzako aproposena den ordutegia hautatuko dute.

Ipuinak entzuteko aukera

Jose Mari Karrere ipuin kontalaria izango da zapatuan, urriak 10, udal liburutegian. Ipuin bildugarrien saioa prestatu du Karrerek arratsaldeko 05:30etan bertara hurbiltzen diren haurrentzat.

Argazki lehiaketa zabalik

Urriaren 20ra arte dago zabalik argazkiak aurkezteko epea. Bakoitzak nahi duen neurrikoak izan daitezke. Lehiaketako argazkiak 24tik 26ra arte egongo dira ikusgai udaletxean. Eguakitzean, urriaren 24an, egingo da sari banaketa eta 80.000 pezeta banatuko dira irabazleentzako artean.

Oroimena lantzeko ikastaroa

3. adinekoentzat antolatuta da oroimena lantzeko ikastaroa. Karnele Korta gizarte laguntzaileak dioenez, "ikastaroaren helburua memoria ez galtzen ikastea da". Adindu elkarteak eskeiniko du ikastaroa eta izen ematea urriaren 17ra arte izango da. Klaseak astean behin izango dira, egueneran arratsaldeko 4:00etatik 6:00etara. Urriaren 30ean hasi eta hilabetez luzatuko da ikastaroa, gehienez 20 pertsonekin.

Behobia-Donostia

Behobia-Donostia lasterketara joateko autobusa ipiniko da. Izena ematea urriaren 15a baino lehen, Gailur eta Surpe tabernetan.



TXOMIN garajea

Mekanika orokorra

Lizarragako hiribidea, 8 ANTZUOLA
Tf. 78 70 77

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriadako pinturak •
- Paper margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •

GAILUR


taberna eta
gozotegia

Buztinzuri, 13 ANTZUOLA Tf. 78 70 32

Ondarea errekuperatzen

Errota zaharrak berritzen ari dira

Balio artistikoa edota arkitektonikoa duten eraikinak eta bestelakoak (karo-biak, irudiak...) berritzeko dirulaguntzak onartzekotan da udala.



Dirulaguntza hauek oso laguntza berezia dira Iñigo Ramirezen hitzetan, "ez baitago ondarea zahar-berritzeko zuzen-zuzenean laguntzarik ematen duen udalik eta horretan gure herria salbuespena dela esan daiteke; gainera iaz, San Martzialgo ermita berritzeko dirulaguntzak eman ziren eta, Diputazioak egingadako plangintzaren arabera, 1999an izango dugu San Martzial konpontzeko aukera; beraz, ezin gara horiei begira egon Antzuolan dugun ondarea egoera kaxkarrean dagoenean".

Florentino Lamarianok Antiguako errota konpontzeko dirulaguntza jaso zuen iaz. 1975. urtera arte martxan egon zen errota horrek 1988ko ur-haundiekin kalte izugarriak izan zituen. Lan dexente hartu du Florentinok makineria guztia garbitzen, baina dagoeneko garia eta artoa ehotzeko behar diren bi harriak biraka ikus daitezke, urak Antiguako kubatik dakarren indarrari esker. Berak adierazi digunez, "udaberrirako nahi neuke martxan ipintzia".

Akiñabeiko errota konpontzen

Jose Mari Iturbek ere jaso zuen iaz Udalak eskeinitako dirulaguntzetako bat Akiñabeiko errota konpontzeko. Lizarragako hamar baserritarrena zen errota erosi zuen orain dela hiru urte eta ordutik berak dihardu konponketa lanetan. Erosi zuenean teilatu barik zegoen, baina tarte honetan hainbat konponketa egin ditu, eta datorren urteko


udazkenean amaituta edukitzea espero du. Jendeak errota ezagutzea nahi du Jose Mari eta halaxe adierazi digu "plan didaktiko moduan edo ipiñi nahi dot eta ikusi nahi daben danei bertara

juteko gonbittia egin nahi jet". Jose Mari dioenez, bere "errota ezta beste batzuen modukua; eztauka ur-saltorik eta holakorik, baiña politta da". 70 bat urte dituen Akiñabeiko errota berriz martxan ipintzea ez da erreza Iturberen esanetan "uran depositua kilometro batera dago eta manantiala beste kilometro batera; baiña motor elektriko bat ipintzeko asmua daukat, martxan ikusteko aukeria eukitzeko".


■ ■ ■
 "Errota ikusi nahi daben danei bertara juteko gonbittia egin nahi jet" JOSE MARI ITURBE
 ■ ■ ■



Lizarragako Akiñabeiko errota konpontzen dihardu Jose Mari.



Florentino bere errotan.



Bidea eginez

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditenteak bideratzen ditugu

Tailerra
 Uzarraga bidea, 10
 Tf. 78 71 78
Erakusketa
 Kalebarren, 1
 Tf. 78 71 79
 Tf. eta F. 76 64 73

Osasuna

Ordezko tratamendu hormonalak

- Zertan datza ordezko tratamendu hormonalak?

- Menopausia garaian funtzio obarikoak etetzen denean hormona naturalak ordezkatzea izango litzateke, menopausiaren prozesu normala atzeratuz. Horrela, menopausian agertzen diren izerdiak, beroaldiak eta urduritasunak ebitatzen ditugu eta, era berean, osteoporosia prebenitu eta sistema kardiobaskularren protekzioa lortzen da. Beti ere, pazienteak ginekologikoki kontrolatuta egotea eta tratamendua arazorik gabe onartzea beharrezkoa da. Miaketa ginekologikoa eta titizkoak, zitologia bat, oinarriko mamografia bat, kontrol analitikoak eta pisuaren eta arteria-presioaren kontrola egin behar dira. Badira tratamendua onartzen ez duten pazienteak (gaisotasun sistematiko bat dutelako adibidez) eta kasu horretan hormonalak ez diren beste alternatiba batzuk planteatzen dira. Edozein

modutan, ohitura higineko eta dietetiko batzuk jarraitzea ere oso inportantea da, egunero pasiatu eta kaltzioa duten elikagaiak (gaingabetuak badira hobeto) jatea esate baterako.

- Zer nolako kontrolak egin behar dira?

- Hasieran, sei hilabeteroko kontrol klinikoa eta analitikoa egin behar



JOSE RAMON SERRANO
(Ginekologoa)

da, tratamenduaren jarraibidea zehazteko. Pazientearentzat jarraibide egokia bada kontrolak urtero egin behar dira. Printzipioz, osteoporosiaren prebentzio egokia lortzeko, gutxienez bost urte behar dira, tratamendua 5-10 urte bitartean luzatu daitekeelarik.

“Menopausia garaian, obariko funtzioa etetzean, hormona naturalak ordezkatu behar dira”



Aldian behingo kontrol mamografikoak egitea gomendatzen da.

- Tratamendu guztiak berdinak dira?

- Aukera ezberdinak daude: ahozkoa (pastillak), transdermikoa (parxeak eta kremak), intradermikoa (inplanteak) edo intramuskularra (injektagarriak). Ez noa esatera tratamendu hau edo bestea hobea dela, beti ere tratamenduaren jarraibidea eta hartzeko modua paziente bakoitzarekin kontsultatu behar da aurretik. Dena den, gaur egun, efektu sekundario gutxiago suposatzen duela eta erosotasuna ere kontutan hartuz, sistemarik erabiliena transdermikoa da.

- Tratamendu honek badu zerikusirik minbiziarekin?

- Gaur egungo ikerketek ordezko tratamendu hormonalak zerbis edo obariko minbiziarekin zerikusirik ez duela frogatu dute. Gaurko tratamendu jarraibideekin (gestaginoak gehituz) ez da utero minbizia izateko arriskua haunditzen eta arazo bakarra titietako minbiziarekin izaten da, tumore hauek hormonamenpekoak direlako eta hauen haunditzea ekar dezaketelako. Hala ere, aldi behingo kontrol mamografikoa eginez guzti hau ebitatu daiteke. Azken hitza beti protagonistak dauka, emakumea kasu honetan.

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79




Aldoka Maldoka

TABERNA


Kruz Gallastegi BERGARA

Zer deritzozu tabernen ordutegi berriari?



Martin Inza

Konforme nago, nahikoa denbora dago eta. Goizeko ordubietatik aurrera zer ba? Zarata atera? Gure gazte denboran hamabietan ixten ziren tabernak.



Karmele Rementeria

Ez dakit, iruditzen zait goiz itxi behar dituztela tabernak. Ez dut esaten goizeko bostak arte zabalik egon behar direnik, baina zerbait gehiago bai.




Maximo Zenitagoia

Niri normala iruditzen zait orain agindu diren orduan ixtea, nahiko denbora egoten baita tabernak itxi bitartean kalean ibiltzeko.



Eider Domenech

Denbora gehiago egon beharko lirateke zabalik, bestela gaua motz geratzen da eta. Ez naiz berandurarte egoten, baina nagusientzat goiz izan daiteke.



Narciso Millan

Gaur egun txikiteoa ia guztiz galdu da eta taberneak batipat gauez lan egiten dute; beraz, ordutegia murrizten badiegu larri ibiliko dira. Zaratak? Guztiok jasaten ditugu.



Mari Karmen Gutierrez

Tabernariak esaten dutenez, eurentzat kaltegarria da eta juerga egunetan behintzat faltan botatzen da denbora gehiago zabalik egotea.

KM 100 sarean ASEGINOLAZAN.
Auto berria baino hobea,
estreinatu KM 100 bat

Honako hau eskaintzen dizugu:


- Enpresa eta direktiboan izandako ibilgailuen aukera zabalena
- Urtebeteko garantia zerbitzu ofizialetan
- Finantziario onena
- Eta guztia aparteko prezioan

ETA GAINERA: **RENTINGa** MARKA
 GUZTIETAKO TURISMO ETA IBILGAILU
 INDUSTRIALETAN



Inaugurazioa, urriaren 11n, larunbata, 11:00etatik 13:30etara
 Urteaga 37 Tf. 76 12 50.

AUTO IA BERRI GARANTIZATUEN ESTATU MAILAKO LEHENENGO SAREA



Tonto kutxa

Asko ari da aldatzen ikusentzunezkoen mundua. Telebista digitala eta beste hainbat berrikuntza ditugu gainean. Izugarritzko iraultza omen dator. Programaketen edukinetan, ordea, atzerantz goazela esango nuke. Geroz eta programa friboloagoak, geroz eta telesail hutsagoak...

Telebistaren egitekoa ez da bakarra. Gertakizunen berri eman, kultura zabaldu, hezi, gure astia bete, bere eginkizunetarikoz batzuk baino ez dira. Beti pentsatu izan dugu hezitzaile paper hori garrantzitsuenetarikoa izan behar zela baina aspalditxoan galtzen ari dela esan genezake, kontsumismo txiro eta nazkagarrienean eroriaz, estatistikek argitaratzen duten ikusleko potentzialari dagozkion datuak direla medioa.

ETB1 ere lasteketa horretan sartuta dago gure zoritxarrerako. Oporretan ikusi ahal izan dugun programazioa gogoratu besterik ez dago. Falces-eko zezen lasterketak behin eta berriro errepikatuta, Azkarrena-Real Sociedad partido zirrargarria, antzarren harrapaketa eta beste hainbat izan dira telebista pizten zuenak begien aurrean aurkitzen zituen perletariko batzuk. Pentsatzen genuen uda amaierarekin beste programaketa berri eta interesgarriago bat izango genuela. Inozook! Iritsi da udazkena eta hor dauzkagu betiko "Goenkale", "64", "Dragoi bola" eta orain "Benta Berri" ere bai; eta hau guztia jasan beharra gutxi balitz, ez bakarrik behin, baizik eta egunean zehar bi, hiru edo Goenkaleren kasuan zazpi atal ikusteko aukera bikaina daukazu urriaren 2ko programaketa irakurtzen baduzu behintzat.

Arrazoi zuen ETBn errepikatzen ez den bakarra Teleberri dela zioenak. Ondo dago ahalik eta ordu gehien betetzea, oso ondo ETBk bere produkzioa bultzatzea, baina ez litzateke txarra izango produkzio horren kalitatea eta edukiak piskat zaintzea.

Iñazio ARREGI



Erregearen izenean

Pasa den astean, goiz urdin batean, aintxintxika nindoala goiko trenbidetik, derrepentian konturatu nintzen nire buruaren zati haundi bat uniforme, odol urdinez, frakez eta istorio-arrosaz beteta neukala, metro batzuk aurrerago gogoratu jaten handik egun batzuetara, urriak 12, (hispanitate eguna) izango zela. Burutazio hauek guztiak nahastu ziren koktel baten moduan eta irakurri zer okurritu jaten. Itsasontzi haundi bat alokatu eta bertan honako pertsonaje hauek sartuko nituzke: Espainiako Erregea, Aita Santua, 40 abizeneko aiton seme tente bat, super bankero pare bat eta izarrez betetako militar bat. Itsasontzi hau ("505 urte lapurtzen" izenekoa) Cadizetik abiatu eta Latinamerikako edozein kalarantz abiatuko zen. Baina ez da bidaia arrunt bat izango. Itsasontziko bidaiariak egunean 10 orduz historia klaseak hartuko dituzte, baina ez betiko historia (kapitanez, obispoz, gobernadorez, bankeroz eta abarrez osatutako historia). Zer egin zen Erregearen eta Jaungoikoaren izenean? Zenbat hilketa, bortxaketa, lapurketa?... 505 urtean bihotz oneko jendea ere joango zen, baina gertatutakoak ikusita ez da ia igarri.

Beno, ailegatu da gure itsasontzia eta bidaiari haundi hauek burua bero-bero eginda eta negarrari ezin eutsiz, jeisten ari dira hondartza txiki batera eta arrantzan dauden agure eta gazteko baten aurrean belaunikatzen dira eta barkamena eskatzen diete. Pollita, ezta? Hau bai izango litzatekeela urriaren 12a ospatzeko modu ederra, baina ikusiko duguna ez da hau izango, baizik eta folklozez, korbataz, uniforme betetako ikuskizun aspergarriak. Bitartean, Latinamerikako biztanle gehienak mirariak eginez aurrera jarraitzeko. Aprobetxatuz itsasontzian emandako klaseak, satelite bidez, ataletan botatzen badute telebistatik, mundu guztia enteratuko ginatete benetan gertatutakoaz.

Herralde haiek (eta beste batzuk) gaur egun dauden moduan egotearen arrazoi nagusienetako bat orain dela 505 urte gertatutako gertatutako moduan gertatu zelako da.

Xabier AZKARATE



EGUZKITZA

MENU BEREZIA:

Lehen platera
Entsalada mistoa
Tutelako kukuluak
Baba gorriak
Potxak almejekin
Esparragoak
Patea
Alkatxofa salteatuak
Berdura-menestra
Onddo-nahaskia
Hestebeteak aukeran

eta abar

Bigarren platera
Xerra patatekin
Eskaloepa
Txuleta
Saiheskia
Baserriko oilaskoa
Mingaina saltsan
Buztana saltsan
Basurdea
Oilarra
Zapoa
Legatza albardatuta

eta abar

**Berriz zabaldu
dugu!
Zatoz gure menu
berezia probatzera!**

Postrea
Aukeran

Menuaren prezioa
1.450 PTA

Oharra: prezio honen barruan ez dago sartuta ez edaririk ezta BEZa (%7) ere.

Aranerreka 30
Tf. 76 56 03

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

MUJIKA

Jantxidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

■ **Ezkontza**

Lurdes Martinez eta Patxi Urkiola bergararrak zapatuan, urriaren 4an, ezkondu ziren.


Labegarrietako elizan elkarri baietza eman ondoren, Patxik eta Lurdesek bazkaria egin zuten senide eta lagunekin batera Lasa jatetxean. Guztiek primerako

eguna igaro zuten elkarrekin eta ondorengo juerga ere ordu txikitana amaitu zen zenbaiten kasuan.

Patxi eta Lurdes astelehenean bertan

Costa Ricara

abiatu ziren ezkontza bidaia egiteko. Ondo pasa eta zorionak!!



KINU



■ **101 urte**

Luisa Agirrezabalek 101 urte egin zituen atzo, urriak 9. Bergarako amama **osasun aldetik primeran** dago eta bere ere umore ezin hobea erakutsi duen senide eta lagunen zorion jasotzerakoan. Domekan familiarekin ospatu zuen bere 101. urteurrena. Hain gustoko duen Bilboko Athletica baino urtebete gehiago... Zorionak!



■ **1961eko bergararrak**

Bigarren urtez jarraian, 1961ean jaiotako bergararrek euren anaiarteko eguna ospatu zuten zapatuan. Deialdiak joan zen urtean baino arrakasta handiagoa izan zuen; iaz 17 lagun bildu

baziren ere, zapatuan **46 lagun** elkartu ziren. Aurten ere umore ona izan zen nagusi. Poteo txiki baten ondoren, kintadako emakume eta gizonen afaria izan zuten Antxoni jatetxean eta afalostean herriko tabernetan dantzan izan genituen. Oraindik ere sasoi onean dira hauek... Eutsi umoreari!!

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimizen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota zikiismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

AKORT
Publizitatea

San Lorenzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

BEREZITASUNAK
BIZKOTXOAK
ERRELENOAK
TOSTOIAK

MUJIKAZOZOTEGIA

Artekale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

■ **Ikasle
beteranoak**

Orain dela 25 urte
Eskola
Profesionalean

(gaurko Miguel Altuna
Institutuan) elektriko

eta mekaniko ikasketak burutu zituzten ikasleak zapatuan elkartu ziren berriz. Institutua bisitatu ondoren (zela aldatzen diren gauzak!!) bazkaria egin zuten Azpeitxi jatetxean. Bazkalostean ikasle garaiko anekdotak gogoratuz, ziur barre ugari egin zutela...



■ **Hegoafrikarrak Bergaran**

Donostian jokatzeko ari den **Munduko Txirrindularitza Txapelketa** dela eta, **Hegoafrikako txirrindulari selekzioko kideak** Bergarako Ariznoa hotelean izan dira egunotan. Guztira **30 lagun** (gizon zein emakumeak) etorri dira. Eguastenean **David Georgek** (laugarrena ezkerretik) brontzeko domina lortu zuen 23 urtetik azpikoen erlojuz kontrako proban. Ea ortzadar mailotik ekartzen duten Bergara aldera...

**Zertan
dihardute
ba?**



Xabier Azkoitia 31 urteko urretxuarra dugu Santa Marina eta Elosuko parroko berria. Donostian burutu zituen Teologia ikasketak eta 1990eko uztailaren 7an Lasarten ordenatu zen apaiz. Bergarara etorri aurretik 7 urte eman ditu Legorretan eta Goierriko bailaran. Bere hitzetan, *"inguru honetara etortzeko gogoia neukan. Asmoak? Lehenengo ikusi, abal baldin bada jendea ezagutu eta lana abal den gebien egin. Eliza guztion zerbitzura egongo da baina baztertutakoen (langabetuak, droga-zaleak edo presoak) gertu egoteko abalegin berezia egingo dugu"*.

LIZAR
ALTZARIAK
Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...
Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Ifnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Jesus Alberdi "Egileor"

Jaio zeneko "Egileor" baserrian lanean harrapatu dugu Jesus. Jubilatuta egon arren (66 urte ditu) oraindik ere ahal duen bakoitzean bertsotan aritzen da nahiz eta bere hitzetan "gaueko jaialdiak lagata izan; modernoak dira eta ez gara horretan hezi".

- Kalea ala baserria?

- Baserri zalea izan naiz beti.

- Hemen zerbaiten beharra somatzen duzu?

- Bidea konpontzeko zain gaude, neguan arazoak izaten ditugu eta.

- Elosuko feriako gauzarik onena?

- Ganadua.

- Abererik gustokoena?

- Behia.

- Zenbat ganadu-buru dituzue baserrian?

- 50 ardi eta 10 asto.

- Astoak desagertzeko zorian daudela esaten dute...

- Orain dirulaguntzak ematen dituzte astoak izatearren...

- Zenbat txakur dituzue?

- Bakarra, "Argi".

- Bertsotarako, areto itxiak ala irekiak?

- Irekiak.

- Bat-bateko bertsoak ala bertso paperak?



"Elosuko feriako gauzarik onena egoten den ganadua izaten da. Urte askotan kalean bizi izan arren, baserri zalea izan naiz beti. Gaur egun bertsolari gazteak hobeto preparatuta daude"

- Bat-batekoa, ez naiz sekula paperekoa izan.

- Bertso barregarria ala bertso sakona?

- Denetik tokatzen da, baina xelebreak nahiago.

- Afalostean ala afaldu aurretik hobeto bertsotan?

- Afalondoa beti ere hobeto.

- Bertsotarako puntua jarri ala puntuan egon?

- Puntua jarrita, puntuan egotea zaila da.

- Ezagutzen duzu "Bertso Hop"?

- Ideiarik ere ez.

- Bergaran badago bertsozaleatasunik?

- Piskat baina bertsolari gutxi, Ainhoa bakarrik. Oso ondo dabil.

- "Hitzetik Hortzera" ikusten duzu?

- Bai.

- Iñigo Aiestaran ala Joxerra Gartzia?

- Gartziaren faboritua naiz, ezagutzen dut eta.

- Bertsolari bat?

- Manuel Lasarte.

- Bertsolari beteranoak ala gazteak?

- Gazteak hobeto preparatuta...

- Zein nabarmenduko zenuke?

- Egaña edo Lizaso.

- Gai-jartzaile bat?

- Laxaro Azkune.

- Bertsolari bat ez da sekula erretiratzen?

- Ezin ailegautakoan erretiratu egiten behar...

Adi, Bergara:

Urriko hil honetan, Deba Gariko EXTRA gehigarria, astean hiru aldiz (astearte, ostegun eta larunbatean) argitaratuko da. Prezioa 50 pezetakoa izango da eta goizean kiosko guztietan egongo da salgai.

EXTRAn gure eskualdeko bederatzi herrietako albisteak eta informazio zehatza jasoko duzu: Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola, Elgeta, Aramaixo eta Gatzaga.

Herrietako kronikak, erreportaia interesgarriak, iritzi-artikuluak, kultur agenda eta beste hainbat gauza kioskoetan aurkituko duzu.

Gogoratu, hil honetan, astearte, ostegun eta larunbatero EXTRA kioskoetan aurkituko duzu.

EXTRA

Deba Garaiko gehigarria

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 35 20.

Etxea salgai Zubiaurren.
Terrazarekin, eguzkitsua.
☎ 76 17 04.

Pisu amueblatua salgai.
☎ 76 49 30 (gauzez).

Pisua salgai Frontoian. 160
m2. ☎ 76 24 42.

Pisua salgai Martokuan.
☎ 76 45 27.

Pisua alokairuan Bilbon,
Deustun. ☎ 76 13 14.

Garajea alokairuan Ibar-
garain. ☎ 76 33 76.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 42 65 (gauzez).

Garajea saldu edo aloka-
tzen da Santa Marinaran.
☎ 76 47 27.

Garajea saldu edo aloka-
tzen da San Lorentzon.
☎ 76 58 28.

Garaje bikoitza salgai
Torrekuan. ☎ 76 30 32.

Garajea alokairuan Burdi-
ñaten. 20m2. ☎ 76 40 03.

Pisua salgai Koldo Eleizal-
den. ☎ 76 23 84.

Pisua salgai Dr. Fleming
kalean. ☎ 76 56 99.

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 35 20.

Pisu bat alokairuan hartu-
ko nuke. ☎ 76 59 54.

DENETARIK

2. eskuko **motoaitzurra**
salgai. ☎ 76 58 12.

Hozkailu berria salgai.
Egoera onean. ☎ 76 70 86.

Bi lagun behar dira Gas-
teizen pisua osatzeko.
☎ 76 28 17.

Botoidun akordeoia
behar dut. 120 bajurekin.
☎ 76 07 79.

Renault 5 GT Turbo
kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

Ume baten txandal txaka-
keta urdina galdu nuen
irailaren 28an. ☎ 76 70 75.

Nikon FM2 kamara berria
salgai. Rowi boltsa haun-
diarekin. ☎ 76 50 86.

Gasteizen pisua osa-
tzeko ikaslea behar da.
☎ 76 41 59 (Iñaki).

Braco aleman txakurra
salgai. ☎ 76 63 71.

Ordenagailua salgai. 586
Pentium plaka. ☎ 76 19 16.

Arrantzako kainaberak
salgai. Matxiategi 29, le-
hen pisua ezkerre.

"Zero-sette" soinu txikia
salgai. ☎ (945) 27 44 26.

Butanozko berogailua
eta egurrezko kalefazio
galdara salgai. ☎ 74 41 28.

LANA

Majisteritza ikasle batek
haurrak zainduko lituzke.
☎ 76 49 38.

Matematika klaseak
ematen dira. ☎ 76 03 72.

Majisteritza 3. mailako
ikasle batek klaseak ematen
ditu. ☎ 76 10 17.

Etxeko lanetarako edo
atariak garbitzeko neska es-
keintzen da. ☎ 76 13 46.

Ingeles eta OHoko
klaseak. ☎ 76 22 95.

BBBko 2. mailako maisua
behar da. ☎ 76 53 57.

Lan egingo nuke zapatu
eta domeketan. ☎ 76 56 66.

Mate, fisika eta kimika
klaseak. ☎ 76 24 31.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Pintura eta marrazki kla-
seak (Arte Ederretan lizen-
tziatuta). ☎ 76 03 83.

Lizentziatu batek mate,
fisika eta kimika klaseak
ematen ditu. ☎ 76 70 40.

Haurrak zaindu eta etxe-
ko lanetarako neska bat
behar da. ☎ 76 24 33
(21:30etatik aurrera).

Klinika auxiliar batek
helduak edo gaisoak zain-
duko lituzke. ☎ 76 18 79.

Etxeko lanak egingo ni-
tuzke. ☎ 76 42 63.

Mate, fisika eta informati-
ka klaseak. ☎ 76 46 03.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.


Udazkeneko moda gaztea jatzeko,
neurria ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko kale, 30 ARRASATE
Tf. 79 05 80



*“Talde baten denbora
bateria-joleak markatzen du,
eta hori da zailena;
bateria-jolea da zuzendaria”*

*“Beste hiru lagunekin batera
talde berria sortu dugu eta
aurki maketa grabatuko dugu
Jam aretoan”*

AITOR ARANBURU, BATERIA-JOLEA

“Musika egitea ez da torniloak egitea; musika sentitu egin behar da”

**15 urte zituenean bate-
ria bat oparitu zion bere
osabak eta harrezkero
baketak astintzen jar-
dun du. Seska taldeko
sortzaileetako bat izan
zen; ondoren, Berakatz
Band, Molestones eta
beste hainbat taldetan
aritu da; inguruko eta
kanpoko talde askore-
kin lan egin du, diskoak
grabatzen zein zuzene-
an. Perkutsioa erakus-
ten du Musika Eskolan,
eta bateria bere etxe-
an. 34 urte ditu.**



15 urte zituenean hasi zen bateria jotzen.

- Euskal Herrian mu-
sika eta perkutsio ikas-
ketak egin ondoren,
Bartzelonara eta Madri-
lera joan zinen ikastera.

- Bai, Bartzelonako
Musika Gelan, musika ga-
raikide eta jazzeko eskola
garrantzitsuenetakoan
ibili nintzen. Gero, Madri-
len, Baron Rojo taldeko
bateria izandako Hermes
Calabriarekin ikasi nuen.
Perkutsio ikasketak egi-
nak ditut, baina bi ikasgai
geratzen zaizkit amaitze-
ko eta ez dut uste bukatu-
ko dudarik. Musika titu-
loak ateratzeko sistema
ofiziala ez dut gustoko,
burokrazia larregi dago.

- Zer behar da bate-
rijole ona izateko?

- Askok ikastea eta, ba-
tez ere, praktikatzen ordu
asko egitea. Oso garrant-
zitsua da gorputzaren ata-
lak eta hauen ahalmenak
egoki aprobetxatzea. Az-
ken finean, bateria joteko
teknika ikastea, zure gor-
putza ezagutzen ikastea
da. Une batean lau gauza
ezberdin batera egin be-
har dituzu eta horiek bu-
ruarekin ondo kontrola-
tzea oso inportantea da.

- Bateria da talde ba-
ten oinarria?

- Bateria-jolea taldeko
zuzendaria da; kitarra-jo-
leak huts egiten badu, be-

harbada ez da inor kontu-
ratuko, baina bateria-jole-
ak huts eginez gero, be-
rehala ohartuko da jen-
dea. Taldearen denbora
bateria joleak markatzen
du. Denbora markatzea
da zailena. Jendeak uste
du baketak azkar astin-
tzea eta zalaparta sortzea
dela garrantzitsuena, me-
ritorik gehien duena, bai-
na taldearen *tempo*a mar-
katzea eta horri eustea da
zailena. Denbora gaizki
markatzen badugu, ez
dugu *feeling*ik edo senti-
mendurik lortuko, nahiz
eta zarata haundia atera.

- Musika eskola ge-
hienetan ez da musika
modernorik erakusten.

- Ondo dago musika
klasikoa erakustea, baina
gaur egun ondoen dabil-
tzen akademiak musika
moderno ere erakusten
dutenak dira. Zergatik?
Asko eta askoren gusto
eta beharretara egokitzen
direlako. Bestalde, musi-
ka sentitzen erakutsi be-
har da. Musika egitea ez
da torniloak egitea. Musi-
ka sentitu eta disfrutatu
egin behar da.

- Gustokoen duzun
bateria-jolea?

- Munduko bateria-jo-
lerik onenetakoa Steve
Gadd da. Bestalde, Euskal
Herri mailan hor daude
Paco Diaz eta Angel Cela-
da, estatu mailan onenen
eta ospetsuenen artean
daudenak. Lehenengo
benetako *feeling*a da eta
bigarrena, ostera, makina
perfektoa. Estilo ezberdi-
nekoak dira, baina biak
oso onak.

- Talderen batean
jotzen duzu?

- Bai, Valen Kalboe-
txeaga, Koldo Lizarralde
eta Amaia Arriaranekin
batera ari naiz. Taldeak
ez du izenik, baina maki-
ta bat grabatzekotan gara
bi aste barru Jam aretoan.

Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. PAGOMENDI	9	3	18	3
2. MONGATXURRAK	7	3	14	6
3. AZPEITXI JATETXEA	7	3	11	5
4. JAUJA OH ZEREZOS	6	3	7	9
5. BAR CANALEJAS	6	2	6	3
6. ERROTAGAIN	4	3	7	5
7. A ZE FLAXA ETXAGI	4	3	9	7
8. AGINASPI	3	3	4	16
9. ETXAGI	2	3	7	9
10. ORTZI	0	3	1	9
11. ARLOTEAK/OILAGORRA	0	3	1	9
12. BILDURBAREK OPEL/LAM	0	2	3	10

A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. EZINLEIKE	9	3	34	10
2. MANITOU	9	3	21	4
3. GANBARA ARI ARI	9	3	15	3
4. MRW	9	3	11	7
5. SHAKTALE	6	3	13	4
6. AGIRREBEÑA JATETXEA	6	3	13	12
7. ALDOKA MALDOKA	4	3	3	8
8. MOSKIS	1	3	2	12
9. INDARGORRI	0	3	5	15
10. KAIXO	0	3	7	27
11. POLIDEPORTIVO TABERNA	0	3	3	20
12. IGANDEKOAK	0	3	4	17


B multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. SLO	9	3	17	3
2. ARTUSAMAK	6	2	14	3
3. JAKINA PT	6	3	22	9
4. AUTOBEREZI	4	3	13	9
5. ERDIBITERRAK	4	3	8	9
6. UVE BIKOITZA	3	3	8	9
7. KUSOAK	3	2	6	8
8. AMOZKIBAR	3	2	7	12
9. BAYER	3	3	8	14
10. TXIPIRON	1	3	4	10
11. AMILOTX	1	3	5	16

C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. BAR GANBARA	6	3	20	6
2. GUADALEST	6	3	10	7
3. FAC	6	3	18	8
4. UFALA	6	2	9	6
5. LA JUVE	6	3	11	5
6. ERI SIRIMIRI	4	3	10	10
7. ETENGABE	4	3	4	7
8. LA PEÑA DML	3	3	10	15
9. KOMANDO PIPERRAK	3	2	5	5
10. MATXAKATEGI	0	2	5	17
11. PATATUS	0	3	6	23

Jokoz kanpo



Jose Luis Gallastegi

ORTZI

ZER MODUZ HASI DUZUE TXAPELKETA?

Nahiko gaizki, hiru partidu jokatu ditugu eta hirurak galdu ditugu.

ZERGATIK GALDU DITUZUE?

Aurrealdean makal samar ari gara. Hiru partidutan gol bakarra sartu dugu.

NORBAIT FALTA ZAIZUE AURREALDEAN?

Ez, gehiago jokatzea. Hiru hilabete jokatu barik izan gara eta martxa hartu arte itxoin egin beharko dugu. Hartutakoan betiko moduan borrokan egingo dugu.

ZER POSTUTAN BUKATZEA ESPERO DUZUE?

Erdialdean bukatuta konformatzen gara. Lehenengo mailan oso talde indartsuak baitaude.

ORAIN ARTEKO TALDERIK ONENA?

A Ze Flaxa Etxagik oso talde ona dauka. Teknikoki oso onak dira.

GOLIK SARTU DUZU?

Ez, baina pare bat edo sartzeko asmoa daukat.

TXAPELKETAKO JOKALARIRIK ONENA?

Bittor Gimenez oso ona da.

LIGAKO ZER TALDE GUSTATZEN ZAIZU?

Reala.

UEFARAKO SAILKATUKO DA?

Ez dut uste, hamarren barruan egiten badu, nahikoa dela uste dut.

REALEKO JOKALARIRIK ONENA?

De Pedro

ETA LIGAKO A?

Raul.

EMAITZAK

ERROTAGAIN-ARLOTEAK/OILAGORRA	3-0
AZPEITXI JATETXEA-JAUJA OH ZEREZOS	7-1
ETXAGI-PAGOMENDI	1-3
A ZE FLAXA ETXAGI-ORTZI	3-0
AGINASPI-MONGATXURRAK	1-3
GANBARA ARI ARI-POLIDEPORTIVO TABERNA	6-0
EZINLEIKE-INDARGORRI	10-3
MRW-KAIXO	7-0
MOSKIS-SHAKTALE	0-4
ALDOKA MALDOKA-IGANDEKOAK	2-1
MANITOU-AGIRREBEÑA JATETXEA	7-3
JAKINA PT-AMILOTX	10-2
AMOZKIBAR-BAYER	5-3
AUTOBEREZI-UVE BIKOITZA	4-6
SLO-TXIPIRON	3-0
ERDIBITERRAK-KUSOAK	1-4
MATXAKATEGI-FAC	3-12
KOMANDO PIPERRAK-UFALA	1-3
ERI SIRIMIRI-PATATUS	4-3
LA JUVE-LA PEÑA DML	6-2
GUADALEST-ETENGABE	1-2
NEKROFIKOS-KOMANDO PIPERRAK	2-4

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: INDARGORRI-MRW • KAIXO
10:00: KAIXO-ALDOKA MALDOKA • INDARGORRI
16:30: ORTZI-BILDURBAREK OPEL/LAM • AMOZKIBAR
17:30: AMILOTX-AMOZKIBAR • BILDURBAREK OPEL/LAM

Domekan barruan

09:30: TXIPIRON-AUTOBEREZI • KUSOAK
10:30: KUSOAK-SLO • ARTUSAMAK
11:30: ARTUSAMAK-ERDIBITERRAK • UVE BIKOITZA
12:30: UVE BIKOITZA-JAKINA PT • ERDIBITERRAK
16:00: PATATUS-LA JUVE • KOMANDO PIPERRAK
17:00: KOMANDO PIPERRAK-ERI SIRIMIRI • GANBARA
18:00: UFALA-BAR GANBARA • MATXAKATEGI
19:00: ETENGABE-MATXAKATEGI • LA PEÑA DML
20:00: LA PEÑA DML-GUADALEST • ETENGABE

Domekan kanpoan

09:30: AGIRREBEÑA JATETXEA-GANBARA ARI ARI • MOSKIS
10:30: IGANDEKOAK-MOSKIS • POLIDEPORTIVO TABERNA
11:30: POLIDEPORTIVO TABERNA-EZINLEIKE • MANITOU
12:30: SHAKTALE-MANITOU • EZINLEIKE
16:00: BAR CANALEJAS-AZPEITXI JATETXEA • OH ZEREZOS
17:00: JAUJA OH ZEREZOS-AGINASPI • ETXAGI
18:00: ARLOTEAK/OILAGORRI-ETXAGI • PAGOMENDI
19:00: PAGOMENDI-A ZE FLAXA ETXAGI • ARLOTEAK

TXINPARTAK

Igeriketa egokitua

Deba Garaiko Mankomunitateko kirol zerbitzuek igeriketa egokituko zerbitzua antolatu dute. Zerbitzua joan zen martxoan eta ekainean jarri zen martxan eta ezgaitasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonen dago zuzenduta. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek Udal Kirol Zerbitzuan jaso dezakete informazioa.

Golf ikastaroa

Deba Garaiko kirol zerbitzuek antolatuta golf ikastaroak egiteko aukera izango da. Ikastaroaren lehenengo hiru jardunaldiak urriaren 18 eta 25ean eta azaroaren 8an izango dira Arrasateko kiroldegian. Azkenengo bi jardunaldiak Urturiko golf zelaian izango dira azaroaren 15 eta 16an. Izena emateko Udal Kirol Zerbitzuko bulegotik pasatu.

Indarberrituta eta asmo berriekin Zaleak taldea

Zaleak atletismo taldeak Bergaran atletismoa berriz ere indartzeko kanpaina hasiko du herriko eskoletan. Izan ere, azkenengo urteetan Bergarako atletismoaren egoera kezagarria da eta hori aldatzeko Jaime Garziak Zaleak elkartearen ardura teknikoa hartuko du.

Zaleak taldekoek proiektu berri ugari martxan jartzeko asmoa dute eta lehenik eta behin eskolatarako joko dute. *"Haurrak adinaren arabera talde ezberdinetan banatuko ditugu eta espezialitate ezberdinak banan-banan landuko ditugu. Lasterketa, jaurtiketa eta jauziekin hasiko gara eta ibarduerak 18 urtera arteko ikasleentzat zabalik izango dira"* adierazi digu Jaime Garziak. Horretaz gain, Zaleakekoak asotelehen, eguasten eta eguakitzetan, 18:15etan Aranzadi ikastolako gimnasioan bilduko dira kirola egiteko. Teknika eta



San Martinetako krossa dataz aldatu nahi dute Zaleak taldekoek.

prestakuntza hobetzeko Arrasate Atletiko taldeko Fernando Zufiria teknikorearen laguntza izango dute.

Herrian atletismoa bultzatu

Eskolako kirolaz gain, herritarren artean atletismoa bultzatzeko asmoa azaldu dute Zaleakekoek. San Martinetako herri krossa, esate baterako, dataz aldatuko dute. Halaber, antolaketa aldetik

lasterketa hobetzeko hainbat berrikuntza iragartzen dute Zaleakekoek. Hobetu beharreko beste atal bat Bergaran ditugun kirol instalazioak dira. Miguel Angel Muela presidentek esan digutenez: *"Agorrosingo pista egoera txarrean daude; ez dago irteerak egiteko takorik, ezin da jaurtiketarik egin, fosoa garbitu egin behar da eta bertarako Udalaren laguntza ezinbestekoa da"*.

Behobia txikia hilaren 25ean

Begarako korrikalari zaletuek bigarren urtez Behobia Txikia antolatuko dute datorren urriaren 25ean. Antolatzaileek Begarako korrikalari guztiak animatu nahi dituzte Agorrosingo igerilekuetatik trenbidez Soraluzeraino dauden 15 kilometroak antxintxikan egitera. Izan ere, antolatzaileek garbi laga nahi dute ez dela konpetiziorik izango eta edozeinek korrika egiteko moduko erritmoa izango dela azpimarratu nahi izan dute. Iaz arrakastatsua izan zen ibilaldia eta aurtengoan parte hartzeko urriaren 22a baino lehen igerilekuetako tabernan eman beharko da izena. Probaren ondoren parte hartzaile guztien artean lagunarteko bazkaria izango da tabernan.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Aretxabaleta**

Lehen maila erregionala.

Domeka. 16:30.

Agorrosin futbol zelaia.

◆ **Bergara-Antzuola**

2. mailako jubenilak.

Zapatua. 17:00.

Ipintza futbol zelaia.

◆ **Bergara-Antiguoko**

Ohorezko mailako infantilak.

Zapatua. 15:30.

Ipintza futbol zelaia.

SASKIBALOIA

◆ **Bergara-Colegio Bizkaia**

Senior maila.

Zapatua. 19:00.

Labegaraieta kiroldegia.

PILOTA

◆ **Bergara-Soraluze**

Kluben arteko txapelketa.

Kadete maila.

Eguakitza. 22:30.

Udal Pilotalekua.

◆ **Bergara-Segurako**

Kluben arteko txapelketa.

Senior maila.

Eguakitza. 23:30.

Udal Pilotalekua.

Aurretik, 21:30etan, Bergarako

pilota txapelketa jokatu da

2. mailako kadeteentzat.

Jokin Etxaniz

Lau eta erdiko txapelketan

Jokin Etxanizek lau eta erdiko txapelketaren lehenengo partidua Tabernaren aurka jokatu du domekan Astelehena pilotalekuan. Igan-deko partiduari buruz eta aurtengo denboraldia zela joan zaion jakiteko berarekin berba egin dugu.

- Zela ikusten duzu Tabernaren aurkako partidua?

- Ondo dabil eta uste nuen aurreko kanporaketan Tolosa III.aren aurkako partidua galdu egingo zuela, baina ustekabea eman du. Lehenengo partidua txarrena izaten da. Gauza bat da entrenatzea eta beste bat partidua jokatzeko. Pare bat entrenamendu egin ditut eta partidua jokatzeko beste gauza bat da.

- Lau eta erdian zela moldatzen zara?

- Elgetako txapelketan jokatu nuen eta iazko txapelketan bi partidua jokatu nituen. Errandonea II.aren aurka irabazi egin nuen eta Elkororen aurka galdu. Bestela, urtean zehar oso gutxi jokatzen dugu eta ez naiz oso ondo moldatzen. Halere, irabazten saiatuko naiz.

- Sasoi aldetik zer moduz zabilta?

- Ez nago oso ondo. Orain arte bikoteka jokatu dugu eta abuztu eta irailean partidua asko jokatu ditugu. Badaude hemendik bi astera hasiko diren pilotariak eta horiek prestatzeko denbora gehiago izango dute. Nik 15 egun bakarrik izan ditut.

- Zela jokatuko duzu Tabernaren aurka?

- Aurrean arriskatu behar harko dut, pilotatzen bera nagusi baita. Arerioa mugitzen saiatuko naiz, nahiko handia da eta aurrean mugituarazi behar diut.

- Konfidantza hartzeko lehenengo partidua garrantzitsuak izango dira, ezta?

- Bai, gainera joan zen urtean Errandonearen aurka oso urduri hasi nintzen eta partidua galdutzat eman nuenean dejada batzuk egiten saiatu nin-


tzen eta zorte piskatekin irabaztea lortu nuen. Horregatik hasierako tantak sartzea oso garrantzitsua da.

- Pozik zaude orain arte egin duzunarekin?

- Bai, urte nahiko ona izan dut. Aste Santu inguruan arratxa txar bat izan nuen, baina bestela urte ona daramat. Udan partidua onak egin ditut eta Donostia eta Logroñoko torneoetan jarri naute eta hori oso garrantzitsua da.

- Iganderako pronostiko bat?

- Irabazi nahiko nuke.



Domekan Eibarren egingo du debuta Tabernaren aurka.

“Irabazteko aurrean jokatu eta dejadak egin behar ditut”



Argazkiak: Aitor Aranburu

Seska taldea Gorlan, 1980

Gaur egun 30 urte inguru dituzuenok gogoratuko duzue Seska taldea. Sasoi batean jairik jai dantzaldiak alaitzen ibiltzen zen eta inguruko herrietan ospea lortu zuen. Taldea 1980. urtean sortu zuten 17 bat urteko herriko bost gaztek: Fran Iturbe (kitarra), Aitor Gallastegi (bajua), Xabier Labaien (teklatura), Aitor Aranburu (bateria) eta Felix Iturbe (kitarra), eta hiruzpalau urte elkarrekin egin ondoren taldea desegin egin zuten.

Aste honetako argazkietan bost taldekideok Gorla inguruko borda bateko kanpoaldean ikus ditzakezue. Normalean, San Lorentzoko ermita zaharreko sakristian entsaiaten zuten, baina eguraldi ona aprobetxatuz eta inor ez molestatzarren Gorlara joan ziren. Argazkietako batean, gainera, Mikel Herzog agertzen da, ile motzarekin, mikrofonoa eskuan, abesten.

Seska taldea gogoratzean, gaur egungo Bergarako beste talde bat etorri zaigu burura: Flayshit. Hau ere, 17 urteko gaztez osatuta eta Koma eta Anestesia taldeekin batera gaur Jam aretoan izango duguna.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABALETIA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

BELATZ

Belatz Gorlako
kantina berriak

Pilarika
egunerako
menu
berezia

eskaintzen dizu



MENUA

Marmitakoa edo
arrain-zopa

•
Oliasko erdi patata
erreekin

•
Ardo edo sagardo
botila

•
Flana edo fruta

•
Kafea

1.800 PTA

Bazkaria kanpoko mahaietan 13:00etatik aurrera. Mahaia hartzeko telefonoa: 58 50 23

MASTERREKA 24

Berriz ere zabalik!



Jantziak
opariak
bitxiak



Masterreka 24, Bergara
Tf. 76 13 61



sofa
leku

a. eme... interiores



centro
hogar
muebles



grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92